



Abba musika talde suediar ezaguneko kideez mozorrotu dira kuadrilla honetako kideak, mikrofono eta guzti. TXINTXARRI

Denboraren makinan dantzan

Inauterietan murgildu da Lasarte-Oria asteburuan: garai desberdinetako mozorroak soinean, primeran pasa dute herritar eta konpartsek / 6-9

Eskubideak aldarrikatzeko

Martxoaren 8rako egitaraua aurkeztu du Lasarte-Oriako Udalak; parte hartzera gonbidatu ditu herritar eta eragileak / 2



Ibon Fernandez Iradiren zigor etete eskaera ukatu du Zigorrak Ezartzeko Frantziako Auzitegiak / 3

EAMk salatu du erraustegia martxan jarriko duten agintariak "neglijente hutsak" direla / 4

Sanpedroetarako diru-laguntzak eskatzeko deialdia ireki du Lasarte-Oriako Udalak / 5

Urre, zilar eta brontzeko domina bana lortu dituzte Ostadar SKTko atletek Euskadikoan / 11

Euskal Herriko Txapelketan lan bikaina egin dute Buruntzaldea IKTko igerilari infantilek / 12

Emakumeen eskubideak aldarrikatzeko egitaraua

Martxoaren 8a, Emakumeen nazioarteko eguneko egitarauan, adin guztietako herritarrei zuzendutako ekitaldiak daude. Lasarte-Oriako herritar, erakunde, elkarte eta eragileei egitarauan parte hartzera gonbidatu ditu udalak

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak Emakumeen Nazioarteko Eguneko egitaraua aurkeztu du. Adin guztietarako ekitaldiak antolatuta ditu, martxoaren 15era arte.

Egitaraua azaltzen hasi baino lehen, Martxoaren 8a emakumearen eguna bezala izendatua izan arren, urteko 365 egunak direla gogoratu du alkate Agustin Valdiviak agerraldian. "Gaur egun dagoen arraila ixteko gizarte guztiak borroka egin behar duela uste dugu. Emakumeak ahaldu eta berea den guztia erreklamatu behar dute argi dago. Baina hori gauzatzeko, hezkuntza, erakunde, elkarteak, familiak... gizarteko eremu guztiek bat egin behar dute". Horregatik, adin guztietara iristen saiatu dira egitaraua osatzeko.

Martxoaren 8an bertan, Emakumeen Nazioarteko Egunean, igande eguerdian, elkarretaratzea egingo da, Okendo plazan. Aurretik, 2021. urteko Emakumeen Nazioarteko Eguneko kartel lehiaketako aukeraketak emango dio hasiera egitarauari. Herriko gazteen proposamenen erakusketa irekiko da Emakumeen Zentroan. Martxoaren 4an, 18:00etan egingo da sari banaketa, asteazkena.



Udal ordezkari eta teknikariak egitarauaren aurkezpenean. TXINTXARRI

Kartel lehiaketaz gain, gazteek *Berdintasunerako prest?* ginkanan parte hartuko dute, Gaztelekuan, eta, Oriarte Institutuarekin elkarlanean, jolas-patioa margotuko dela ere jakitera eman dute, gune hori berdintasuna lantzeko espazio bezala erabiltzeko. Era berean, haurrei zuzendutako bi ekintza egingo dituzte: *Teresa printzesa morea* ipuin kontalariaren saioa eta *Meri, Mari eta Lari* antzerkia.

Antzerkia, afaria, musika eta zinema izango dira helduei zuzendutako hitzorduak. Ohikoak diren ekitaldien artean, aurtur bi berrikuntza nagusi izango

dira: Zero Sette akordeoi orkestraren kontzertua eta Zinegoak Bilboko Gaylesbotrans nazioarteko zinema eta arte eszenikoaren jaialdiko filma laburren emanaldia.

Adineko pertsonen ere izango dute bere tarte, berdintasuna lantzeko bideo forum bat antolatu da eta. Martxoaren 7an, larunbata, adin guztiei irekitako ekintza izango da, zunba maratoia.

Udal ordezkariak herritar guztiei dei egiten diete egitarauko ekitaldietan parte hartzera. Batez ere martxoaren 8an, igandez, Okendo plazan egingo duten elkarretaratzera.

Eguneko zentrorra joateko zerbitzua, Gurutze Gorriaren esku

Erakundeak eta Domusvi enpresak sinatu dute hitzarmena. 2019an, 37 pertsonak erabili dute zerbitzua

Txintxarri

Lasarte-Oriako Gurutze Gorriak hitzarmena sinatu du Atsobakar eguneko zentroa kudeatzen duen Domusvi enpresarekin: adineko pertsonak bertara garraiatzeko zerbitzua eskainiko du, urteko

egun guztietan. "Egokituta dauden eta beharrezko segurtasun neurriak dituzten ibilgailuak, Gurutze Gorriko gidari bat eta Atsobakar egoitzako langile kualifikatu bat" arduratuko dira zerbitzua emateaz. 2019an 37

pertsonak erabili zuten. Gaur egun 22 erabiltzaile aktibo ditu, Gurutze Gorriak emandako datuen arabera.

Gurutze Gorriak 2000. urtetik eskaintzen ditu garraio egokituko zerbitzuak. "Helburua da mugikortasun urria duten pertsonak ahalik eta gehien gizarteratzea", nabarmendu du elkarteak. "Ez da erraza aisia eta denbora libreko ekintza horietan parte hartzea pertsona horientzat, aukera bakarra garraio publikoa denean".



Gurutze Gorriko eta Domusvi enpresako ordezkariak hitzarmen sinaketan. GURUTZE GORRIA

Egitaraua

Martxoaren 4ra arte

17:00etatik 19:30era, Martxoaren 8ko kartel lehiaketaren erakusketa eta bozketa. Emakumeen Zentro Zibikoa.

Martxoak 3, asteartea

18:00etan, *Teresa printzesa morea* ipuin kontalaria. 3 eta 8 urte arteko haurrei zuzendua. Manuel Lekuona Kultur Etxeko liburutegia.

Martxoak 4, asteazkena

18:00etan, Martxoaren 8ko kartel lehiaketako sari banaketa, Emakumeen Zentro Zibikoa.

Martxoak 6, ostirala

18:00etan, *Berdintasunerako prest?* ginkana. 12 eta 15 urte bitarteko gazteei zuzendua. Gaztelekua.

19:30ean, *Pase lo que pase... Ilegamos* antzerkia Emakumeen Zentro Zibikoko Makelur taldearen eskutik. Manuel Lekuona kultur etxea. Sarrera, 3 euro.

21:30ean, afari herrikoa, Abend jatetxea. Izena ematea Emakumeen Zentro Zibikoan.

Martxoak 7, larunbata

10:30etik 13:00etara, V. Zunba maratoia, Okendo plaza.

*Eguraldi txarra egingo balu Loidi Barrengo pilotalekuan egingo da.

Martxoak 8, igandea

12:00etan, elkarretaratzea, Okendo plaza.

12:20ean, *Emakume zuzendarien lanak* kontzertua eskainiko du Zero Sette akordeoi orkestrak, Antonio Mercero gunea.

Martxoak 11, asteazkena

10:30ean, *Meri, Mari eta Lari* antzerkia, Manuel lekuona Kultur Etxea. (Ikastetxeetako haurrei zuzendutako ekitaldia)

18:00etan, *Berdintasuna* lantzeko bideoforum, Biyak Bat elkarte.

Martxoak 14, larunbata

19:00etan, Zinegoak Bilboko Gaylesbitrans nazioarteko zinema eta arte eszenikoaren jaialdiko film laburren emanaldia, Manuel Lekuona kultur etxea. Gonbidapenak/Sarrera, 5,50 euro.

Martxoak 15, igandea

19:30ean, *La Cholitas* filma eskainiko da helduen zinema atalean, Manuel lekuona kultur etxea. Sarrera, 5,50 euro. Kulutra Sailarekin lankidetzan

Itsasoa eta ingurumena ezagutzen kultur etxean

Herriko ikastetxeetako haurrek Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloan parte hartu dute, 'Txikizikloa' izeneko ekimenean: hainbat ikus-entzunezko pieza ikusiz eta GAEA elkarteko kideekin solastuz, hainbat kontzeptu ezagutu eta sakondu dituzte asteon

Iñigo Gonzalez Sarobe

Harridura oihuak itsaspeko olagarro erraldoi bat agertu denean pantailan. Beste bat itsasoko olatuek Donostiako Paseo Berriko horma bortizki jo dutenean. Itsasoko sekretuek liluratu egin dituzte herriko ikastetxeetako haurrak asteazken goizean. CIMASUB Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloko antolatzaileek prestatutako *Txikizikloa* ekimenean parte hartu dute.

Sarrera moduan, zenbait laburmetraia ikusi dituzte. Horietako bat Kantauri itsasoan bizi diren animaliei buruzkoa zen. Nomadak dira horietako zenbait, bizitokiz etengabe aldatzen dutenak, alegia: marrazoak eta manta-arrainak. 180 metro baino gehiagoko sakoneran bizi dira.

Gaur egungo gaztetxoek harridura eta lilura oihu horiek kezka eta tristurazkoak bilaka daitezke urte gutxiren buruan. Itsasoko kutsaduraz ohartarazi die beste film labor batek haurrei. Datu bat: plastiko kontsumo eta kutsadura erritmo honekin jarraituz gero -2019a izan da urterik kutsagarriena, dokumentalaren arabera-, 2050. urtean animalia baino plastiko gehiago egongo da ozeanoan eta itsasoetan. Itsasoa ezagutzeaz



Kontzeptu interesgarri asko sakondu dituzte ikastetxeetako haurrek. TXINTXARRI

gain, beste hainbat kontzeptu ezagutu eta sakondu dituzte ikasleek. Esate baterako, berotegi efektua zer den, nondik datorren eta zein eragin duen gure planetan. GAEA elkarteko kide Maite Erauskin eta Elsa Cuendek eskaini dute hitzaldia. Tarteka, galderak ere egin dizkiete haurrei.

Astelehenean azken saioa

Aste honetako astelehenean egin dute CIMASUB zikloko azken saioa, hilak 24. Kultur etxeko auditoriora gerturatu direnek kalitate handiko lanak ikusi

dituzte. Antolatzaileek proiektio berezia prestatu eta aurten saritutako lanak eskaini dituzte. Horietako bat izan da Isaiaz Cruzek egindako *Caila* film laborra, euskal kostaldeari buruzkoa. Rafa Herrero kamera eta errealizadoreari ere omenalditxo bat egin diote.

Film eta dokumentalez gain, argazki diaporama bat ere proiektatu dute azken saio horretan. Aurtengo sarituen irudiekin egin dute bilduma. Lehen saria François Baelen frantsesak irabazi du.

NEURE KABUZ



ASIER ODRIOZOLA

Birus informatiboa

Komunikabideak barrutik ezagutzen ditugunok badakigu nola jokatzen dugun gai berri eta globalak pizten direnean. Gerotik gerora eta zeharka ibili gabe argituko dizuet koronabirus delakoaz ari naizela. Pixkanaka zabalitzen da badela urrun, oso urrun, lehertu den birus bat eta geroz eta jende gehiago kaltetu duela. Urrun ikusten da hasiera batean baina gauza onak bezala txarrak dituen globalizazioaren tren azkarrera igota ziztu bizian hurbildu zaigu.

Birus hori ahalik eta gehien kontrolatu nahia bidezkoa da baina hortik aurrera, ez al gara historia modu batean murgildu albistegi eta telebista zein irrati programatan? Albistegi oso baten hiru laurden gai horri eskaintzea ez dakit errealitatearen larritasunarekin batean datorren. Azken batean koronabirusa gripe modu bat dela diote dakitenek. Baina halakoetan askoz gehiago hitz egiten dute ez dakitenek, hori baita tertuliaren berezko muina: parte hartzaile bakoitzak "huntaz eta hartaz" berba egitea, gutxiago edo gehiago jakin. Egunkari, irrati eta telebistatan esan liteke ez dela beste konturik.

Ez da ordea berria joera hau eta orain baino lehen gauza beretsua gertatu izan da Brexitarekin, Kataluñako gorabeherekin edo eta klima aldaketarekin. Modaren ereduaren mugitzen da albistearen tratamendua: orain honetaz hitz egitea egokitzen da eta arazoa konpondu baino lehen desagertuko dira koronabirusaren inguruko berriak, modaz pasatzen direnean. Ikusiko duzue!

Ibon Fernandez Iradiren zigor etete eskaera ukatu dute

Mobilizatzerak deitu du Lasarte-Oriako Sarek gaurko: 20:00etan jarri dute hitzordua, Okendo plazan

Txintxarri

TXINTXARRI-k edizioa ixtear zuela iritsi da albistea: Zigorrek Ezartzeko Frantziako Auzitegiak ez du onartu Ibon Fernandez Iradi preso lasarteoriatarren zigor etete eskaera, eta kartzelan jarraitu beharko du, esklerosi anizkoitza eduki arren -2013an diagnostikatu zioten-. Parisko Dei Auzitegiak zigorra etetearen

alde egin zuen azaroan, baina prokuradoreak helegitea jarri zion erabaki horri.

Lasarte-Oriako Sarek deituta, mobilizazioa egingo dute gaur arratsaldean, 20:00etan, Okendo plazan. *Azken ostirala*-rekin bat egingo du ekimen horrek. Erabaki horren inguruan jardungo dira, eta herritarren egoera zein den ere esplikatu dute.

TXINTXARRI PUBLIZITATEA:

Bertan zure zerbitzuak iragarri nahi dituzu?

publizitatea@ttakun.eus
943 371 448 (106)
646 82 44 66



Geltoki kalea 4,
Lasarte-Oria

II. BARRIKOTEA

ttakunenea elkartean

MARTXOAREN 6AN (OSTIRALEAN)

AFARIA 21:00etan TRIKITIAZ GIROTUA

- Txorixo egosia
- Bakailau tortilla
- Saiheskia
- Entsalada
- Gazta, irasagarra eta intxaurrek
- Kafea eta kopa

23 €

Txartelak JALGI eta LARGI tabernetan salgai. (Epea: martxoaren 3a, astearte)

GURUTZE

Diafreo gunea

HITZALDIA

“premenopausia eta menopausia”

martxoak 5 osteguna
19:30-21:30

M^o Jesus Balbas Cisneros "Txusa"
Ginekologa eta mediku homeopata

10 €

kopuru mugatua

IZENA EMATEKO:

© 617 584 095 • GURUTZE Diafreo gunea • Geltoki 25 atzea



Asteartean egin du agerraldia prentsaren aurrean Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak, Donostian. TXINTXARRI

"Zaborraren mafiaren eskrupulo eza" salatuz

Biharko Larreko Mahaiak Donostian deitutako manifestaziora joateko deia egin die herritarrei; arratsaldeko 17:00etan abiatuko da mobilizazioa, Easo plazatik. OEITko medikuek ere azaldu dute erraustegiak oraindik ere osasunerako arriskutsuak direla

Txintxarri

EAM Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak agerraldia egin du astearte goizean, Donostian. Zubietako "proiektu kriminala" martxan jarriko duten agintari politikoak "neglijente hutsak" direla salatu dute, eta Zaldibarren gertatutako ezbeharrak ekarri dute gogora zaborte hori eta Zubietako erraustegia alderatzeko. "Gutxi batzuen negozioagatik, milaka herritarren osasuna jarri dute arriskuan; neglijente hutsak dira, eta gero, horrelako egoerak kudeatu behar direnean, ez dute mailarik ematen". Horrela azaldu dute Maria Luisa Sanchez eta Joxe Mari Irazustak, EAMren izenean.

Pribatizazioaren bideak dakarrena azaltzeko egin diote erreferentzia, berriz ere, Zaldibarren gertatutakoari, azalduz, pribatizazioak erakutsi duela "zaborraren mafiak ez duela eskrupulorik". Argi dauka taldeak: "Dirua egitea da euren helburu bakarra, eta horretarako, praktika ustel guztiak aurrera eramateko prest daude".

Agintari politikoei hondakinengain inoiz konponbiderik ez jartzea leporatu diete. "Zaldibarko

hondakinak Gipuzkoako erraustegira ekarri nahi dituzte; hori arazoa lekuz aldatzea da besterik ez da". Horregatik, gaikako bilketa sistema "eraginkorren" politikak aplikatzeko eskaera egin dute: "Herriz herri pausoak eman behar dira, ez da inor konformatu hondakinak nahasian botatzearekin". Gogorarazi dute frogatu dutela hondakinak kudeatzeko alternatibak badaudela, Gipuzkoako herri askotan egin direla hobekuntzak, nahiz eta onartzen duten, zereginak oraindik badaudela. Donostiako, Lasarte-Oriako, Irungo, Hondarribiko eta Elgoibarko gaikako bilketaren datu "kezagarri eta salagarri" egin diete erreferentzia. Horregatik "pauso berrien garaia" dela nabarmendu du taldeak: "Gure udalek zorrotzasunez hartu behar dute konpromisoa beraiek bildutako hondakin Zubietako erraustegira ez bidaltzeko. Egin dute eskaera garbi bat: "Hondakinak bereizita ongi jasotzen direnetan, ez eraman horiek erraustera".

Zubietako erraustegiak inguruko jendea eta etorkizuneko

herritarrek "kutsatu eta kaltetu" ez ditzan, ekintza berriak antolatzeko beharra ikusten du EAMk. "Jarraituko dugu kontrol independenteak egiten, herritarren artean egiazko informazioa zabaltzen, eta gure esku dagoena zorrotzasunez egiten, guztion etorkizuna erre ez dezaten". Bide batez, Larreko Mahaiak -klima larrialdiari aurre egiteko Gipuzkoako eragile hainbatek sortutako plataforma- biharko Donostian deitu duen manifestaziora joateko deia egin dute. *Osasunagatik, ekonomiarengatik eta klimagatik, ez erre etorkizuna!* lelopean, Easo plazatik abiatuko da mobilizazioa, 17:00etan.

Kandelekin eta beltzez jantzita Martxoaren 3rako ere beste deialdi bat egin dute, egun horretan jarriko baitute ofizialki martxan erraustegia, nahiz eta ez den erabat ziurra. Horrela, herri guztietan, arratsaldeko zazpitan kandelekin eta beltzez jantzita kontzentrazioak deitu dituzte. Horrez gain, deialdi berriak egon daitezkeela iragarri dute, hortaz komunikazio bideei

adi egoteko eskatu diete herritarrei.

OEIT Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeko medikuak ere gaiaz hitz egiteko prentsaurrea agertu dira, Usurbilen, eta argi azaldu dute "erraustegiak oraindik ere herritarren osasunerako arrisku bat direla". Iaz argitaratutako bi azterlanetan jarri dute arreta; Britainia Handian egindakoa lehena eta bigarrena, berriz, Italian egindakoa. Lehenak erakusten du nola jaiotzatik malformazioak jasateko arriskua areagotu egin den ikertutako erraustegien inguruan bizi diren biztanleen artean; zehazki bihotzeko eta gernu-aparatuko malformazioak. Bigarrenean, aldiz, hilkortasun totalaren gorakada nabari da, minbizia linfatikoagatik, arnas gaixotasunagatik eta gaixotasunardiobaskularrengatik. Horiek ere erraustegien inguruetan bizi diren biztanleriaren hartutako datuak dira.

Afekzio horietako batzuk erraustegi modernoengandik inguruan berriki egindako beste ikerlan batzuen ondorioekin bat datozela ere jakinarazi dute OIETko medikuek; baita Munduko Osasun Erakundeak 2016an hondakinak eta osasunari buruz argitaratutako txosten batean aipatutakoarekin ere. Adierazpen argi bat gehitu dute: "Medikuak eta Gipuzkoako herritarrek garen aldetik, esan dezakegu hondakinak erraustuz ondoren sortzen diren zepak eta erraustsak zabortegean metatzeak are gehiago

LARREKO MAHAIK BIHARKO DEITU DUEN MOBILIZAZIOA JOATEKO DEIA EGIN DIETE HERRITARREI

"EZ DIOTE HONDAKINEN GAIARI IRTENBIDERIK JARRI; ARAZOA LEKUZ ALDATZEN ARI DIRA"

kaskartuko duela arnasten dugun airearen zein gure elikagaiak landatzen ditugun lurzoruen kalitatea, eta horrek guztiak herritarren gaixotzeko arriskua areagotuko du".

Hori kontuan hartuta, eskaera bat egin diete agintariei: osasunean ez ezik, ingurumenean eta kliman ahalik eta eragin gutxien izango duen moduan kudeatu ditzatela hondakinak. "Kudeaketa horrek, jakina, hondakinengandik errausketa eta horren ondorioz sortutako zepena eta erraustsen zabortegeetako metaketa bertan behera uztea eskatzen du". Agerraldia amaitu aurretik, "klase politiko eta erakunde guztiei" ere zuzendu dizkiete azken hitzak. Eskatu diete osasuna euren politika guztietan txertatzea, ingurumen osasungarriagoak sortzeko eta gaixotasunak ekiditeko, Munduko Osasun Erakundearen gomendioari eta "gizartearen nahia" jarraiki.



Zaldibar argitzeko eta erraustegia geratzeko eskatu dute. TXINTXARRI

Inauterietan ere, aldarrikapena

Iragan larunbatekot Inauteri festan ere Zaldibarko gertaera argitzeko eta erraustegia gelditzeko eskatu zuten herritarrek. Festa giroa aldarrikapenak egiteko ere baliatu zuten lasarteoriarrek.

Sanpedroetarako laguntzak eska daitezke

Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi du ireki duela epea herriko jaietara begira diru-laguntzak eskatzeko: azken eguna martxoaren 27a izango da, ostirala. 9.449 euroko poltsa bat prestatu du. Sei irizpideren arabera baloratuko dituzte jasotako eskaera guztiak

Txintxarri

Aurtengo ekain bukaeran hasiko diren sanpedroetan ekintzenaren bat egitekotan dabilzan herritarrek eta elkarteek diru-laguntzak eska diezazkiokete Lasarte-Oriako Udalari. Eskaerak aurkezteko azken eguna martxoaren 27a izango da, ostirala. 9.449 euroko poltsa bat bideratuko du udalak laguntza lerro horretara.

Eskatzaileek hainbat baldintza bete beharko dituztela zehaztu du udalak. Esate baterako, egoitza herrian duten pertsona fisiko edo juridikoak izan beharko dutela, eta "interes orokorreko jarduerak" antolatu beharko dituztela sanpedroetan. Horrez gain, eskatzaileen erregistroan alta emanda egon beharko dute, eta behar bezela bete eskaera orria: "Zehatz-mehatz azaldu beharko dute festetan egin nahi dutena, eta zenbatekoa izango den aurrekontua".

Esan bezala, martxoaren 27an itxiko da epea diru-laguntza horiek eskatzeko. Behin eskaera guztiak eskuetan, udalak baloratu egingo ditu horiek. Irizpide sorta bat prestatu du horretarako, eta puntu kopuru bat eman bakoitzari. Jarduera edo egitasmoaren aurrekontuak 40 puntu balioko ditu, adibide bat



Argazkian, iazko helduen txupina, ostiral arratsaldekoa, Okendo plazan. TXINTXARRI

jartzearen. Beste bost neurgai erabiliko ditu udalak. Hauek dira: jarduera horretan parte hartuko duten pertsonen kopuruak hogeitu puntu balioko ditu; egitasmo edo proiektuaren finantzazio-tasak, hamabost; eskatzaile bakoitzak aurkeztu duen jarduera bakoitzak horren antzeko proposamenekin eduki dezakeen koordinazioak, hamar; egitasmoak orain arte egin duen ibilbidea eta izan duen errotze-mailak, beste hamar; eta ideia aurkeztu duen norbanako, eragile edo konpartsak herri

mailan daukan fidagarritasunak, bost puntu.

Sorgin Jaiak, martxan

Sorgin Jaien lantaldea hasi da aurtengo festa alternatiboak prestatzen. Proposamenak eta ideiak biltzen ari dira, ostiral arratsaldeetan Xirimiri elkartearen egiten dituzten asanblada irekietan. Herritarrek animatzen dituzte bilera horietara joan eta euren ekarpenak egitera. Datorren aste ostiralean elkartuko dira berriro, martxoak 6, 19:30ean.

Barrikotea egingo dute Ttakunenean, martxoaren 6an

Sagardo freskoa eta menu goxoa dastatu ahalko dituzte herritarrek; salgai daude tiketak, Jalgin eta Ilargin

Txintxarri

Hasi da sagardo denboraldi berria, eta "txotx!" oihuak entzun daitezke han eta hemengo sagardotegietan. Elkartean ere bai: Ttakunenean, esate baterako, martxoaren 6an egingo dute barrikotea, ostiralez, 21:00etatik aurrera. Salgai jarri dituzte tiketak honezkero, Jalgi Kafe Antzokian eta Ilargi tabernan. 23 euro balio dute. Martxoaren 3a izango da horiek erosteko azken eguna, asteartea.

Antolatzaileek zehaztu dutenez, afaria girotua izango da:

trikitilariak emanaldia eskainiko dute, 21:00etan hasita. Sagardo freskoa dastatzeaz gain, honako menuaz gozatuko dute herritarrek: txorizo egosia, bakailao tortilla, txahal saiheskia eta entsalada. Postrea, ohikoa: gazta, irasagarra eta intxaurreak. Ondoren, afaria jaisteko, kafea eta kopa ere hartu ahalko ditu hala nahi duenak.

Ttakuneneako lantaldeak bigarren antolatzen du barrikotea. Lasarteoriatarrek animatzen ditu txartelak erosi eta ekintzan parte hartzera.



TXINTXARRI

Andaluzia eguna ospatzera

Festarako prest dago Semblante Andaluz elkartearen Andaluzia eguna ospatuko du asteburuan —gaur da egun handia, otsailak 28—. Ohorezko ardoarekin topa eginez hasiko dituzte ospakizunak, gaur iluntzeko zortzietan. Umeentzako ekintzak egingo dituzte bihar. Igandean, berriz, meza Arantzazuko Ama parrokian, eta bazkaria eta kontzertua gero, Semblante Andaluzen egoitzan.

OTSAILAK 27 - MARTXOAK 12

NAFAR HEGOALDEKO UZTA
E S K U T I K E S K U R A

GURE HAUTUEZ
HARRO

OSTIRALA 28, 19:00ETATIK AUERRERA ARTIZAR-TIBURTZIO TABERNAN
PRODUKTUAK DASTATZEKO AUKERA EGONGO DA

Nafarroa hegoaldeko
oliba-olio birjina estra
—5 litroko bidoietan— eta
arroz, pasta eta
kontserbak —12 ontziko
sortetan— euskaraz
etiketatuta eta ekoizlearen
jatorrizko prezioan
www.errigora.eus

ERRIGORA

A photograph of a street festival. In the foreground, a young girl in a pink dress is playing a pink and yellow flower-shaped instrument. To her right, a boy in a blue sweater and red pants is walking. Further right, a man in a blue and white costume with a red nose and glasses is walking. In the background, a large sign reads 'DENBORA JANTZITAKO MOZORROAK' (Time for mask dances). A boy in a cowboy costume is also visible. A sign with a cartoon character and the text 'MOZORROAK' is in the foreground.

Ostegunean jantzitako mozorroak igandera arte ezin kendu

Ostegunean hasi eta igandera bitarte, askotariko ekintzetan parte hartzeko aukera izan dute lasarteoriatarrek. Kontzertu bufoa eskaini dute Udal Musika Eskolako ikaslek ostegun arratsaldean, kultur etxean. Ostiralean, ikastetxeetako Inauteri festa egin dute ikasleek, eta arratsaldean, Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako Inahaldunak jaialdian ere gozatu ederra hartu dute. Larunbatean, berriz, aurrez prestatutako mozorroak jantzi eta kalera irten dira herritarrek, eta egun osoko egitarauaz gozatu ahal izan dute. Astea festa giroan amaitzeko, Biyak Bat zaharren egoitzan, Inauteri festa egin dute igandean.



Udal Musika Eskolako ikasleek kontzertu bufoa egin dute ostegun arratsaldean, Manuel Lekuona kultur etxean. TXINTXARRI



Musika instrumentu ugariarekin eskaini dute emanaldia musikariek. TXINTXARRI



Mozorro dotoreak jantzita agertu dira oholtzara emanaldi osoan zehar. TXINTXARRI



Piano jotzaile bat osteguneko emanaldiaren une batean. TXINTXARRI



Txiki eta gazte, guztiek kontzertu dibertigarria eskaini dute aurtengo kontzertu bufoan ere. TXINTXARRI



Garaikoetxeako ikasleek lantzeko Inauteria hartu dute gaitzat. TXINTXARRI



Sasoetako ikasleek denboraren makinaren bitartez iraganera egin dute bidaia. TXINTXARRI



Landaberriko irakasleak ere batu da Inauteri festara; 4.500. urteko gizakia bilakatu dira. TXINTXARRI



Erakustaldi koloretsua eta animatua egin dute Sasoetako ikasle guztiek. TXINTXARRI



Landaberriko gazte talde bat Egiptoko errege-erreginaz mozorrotuta irten da agertokira, dantzara. TXINTXARRI



Herriko gaztetxoek Inahaldunak Inauteri festaz gozatu ahal izan dute ostiral arratsaldean. TXINTXARRI



Musikaren laguntzarekin eta mozorroak soinean, dantzaldi animatua egin dute Okendoko karpan. TXINTXARRI



Norberak aurkeratutako mozorroak jantzita agertu dira gaztetxoak Ttakunen festara. TXINTXARRI



9 eta 16 urteko gazteek ere Inauteri festa ederraz gozatu dute Gaztelekuan. TXINTXARRI



Eskoziako jantziak soinean, dantza erakustaldia egin dute lagun talde batek, ostiraleko saioan. TXINTXARRI



Erakustaldia egin duten taldeen talentua baloratu du epaile talde batek Inauteri festan. TXINTXARRI

Larunbata



Larunbat goizean, bakarkako mozorreen lehiaketa ere egin zuten Okendo plazan. TXINTXARRI



Erik Arzallus eta Mikel Bermejo arduratu dira larunbat goiza gidatzeaz. TXINTXARRI



Bazkalostean bingoan parte hartu dute Okendoko karpan bildutakoek. TXINTXARRI



Aterpeak egin ditu konpartsa onena aukeratzeko epaile lanak. TXINTXARRI



Sasoeta Sasoian taldearen konpartsa izan da aurtengo garailea. Zintzarria lortu zuten oroigarri gisa. TXINTXARRI



Hippi kuadrila bat ere ibili da herriko kaleak girotzen. TXINTXARRI

Igandea



Jesusen 'Azken Afarria' irudikatu du herritar talde batek larunbateko Inauteri egunean. TXINTXARRI



Asteburua amaitzeko, mozorro jaialdia egin dute Biyak Bat egoitzan. TXEMA VALLES



Zaharren egoitzako mozorro lehiaketako garaileak, sariak eskuarteant dituztela. TXEMA VALLES

Defentsa lanak ekarri du hirugarren garaipena

Beste garaipen bat zakuratu du Ostadar SKTk, kadete mailako Euskal Ligan. Lautik hiru. Loiola Indautxurekin neurtu dituzte indarrak urdin-beltzek. Bigarren laurdenean hautsi dute partida herritarrek, eta ongi kudeatu dute abantaila: azken emaitza, 50-39

Txintxarri

Errendimendu kadete mailako Ostadar SKT denboraldi paregabea egiten ari da. Liga kategoria horretan hasi zuen, eta, hilabete batzuk beranduago, Euskal Ligara igo da, A-2 multzora. Berehala hartu dio neurria erronka berriari, eta ederki ari da: jokatutako lau norgehiagoketatik hiru irabazi ditu. Azkena, pasa den larunbatean, Maialen Chourraut kiroldegian. Etxean. 50-39. Arerioa, Loiola Indautxu donostiarra.

Lehenengo laurdena parekatua izan zen. Talde batek bestearen indarrak neurtu zituen, eta alderantziz. Saskiraketa gutxi ospatu zituzten zaleek: 12-9koa islatzen zuen markagailuak lehen hamar minutuak jokatu eta gero. Ostadar aurretik. Hori ez zen aldatu partida osoan.

Freskoago eta indartsuago ekin zioten urdin-beltzek bigarren laurdinari, eta nabaritu zen hori markagailuan: 24-15ekoa



Kadeteen aurtengo partida bat. J. SANCHEZ

atsedenaldian. Hor apurto zuen partida etxeko taldeak. Oraindik ez zegoen ezer erabakita, ordea.

Aldageletatik bueltan, indarrak asko parekatu ziren berriro ere. Defentsak gehiago nabarmendu ziren erasoak baino, argi

baitzuten bi entrenatzaileek partidaren gakoetako bat hori zela: norberaren saskia giltzaz itxi, eta, ondoren, arerioarena zulatzen saiatzea. Estutu egin zuen Loiola Indautxuk hirugarren laurdenean, baina Ostadar ito gabe: 34-28 urdin-beltzen alde.

30 minututan irabazitakoa azken hamarretan ez galtzea zaila da batzuetan, baina ez zitzaion hori gertatu Ostadarri. Alderantziz: finago aritu zen erasoan, eta lasai antzean jokatu zituen azken baloi-jabetzak. Bukaeran, 50-39. Euskal Ligan ari denetik hirugarren garaipena.

Seniorrak, errebantxa bila

Gipuzkoako 1. mailako senior taldeak Antigua Luberriren aurka jokatu du asteburu honetan, Maialen Chourraut kiroldegian. Kategoriako talde indartsuonetak bi dira. Lehen itzuliko neurketan bi puntugatik besterik ez zuten galdu herritarrek -41-39-. Errebantxa nahi dute.

Igeriketa ikastaroetan izena emateko epea zabaldu du udalak

Igeriketa ikastaroak egin nahi dituzten herritarrek izena eman dezakete, Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi duenez. Otsailaren 28a izango da azken eguna, aste honetako ostirala, hain justu. Helduei zuzendutako kurtsuak izango dira; martxoan eta apirilean zehar egingo dituzte. Astelehen, asteazken eta ostiraletan izango dira saioak,

20:30etik aurrera. Kiroldegiko bazkideek direnek 63,10 euro ordaindu beharko dituzte; bazkide ez direnek, aldiz, 113,60 euro. Interesa dutenek kiroldegiko bulegoetara joan beharko dute.

Udalak gogorarazi du irekita daudela kirol jardueretako dirulaguntzak eskatzeko epea. Martxoaren 27a izango da azken eguna, ostirala. Ia 84.000 euro bideratuko ditu kirol zerbitzuak aurtan. 2020ko irailaren 30a izango da justifikazioak aurkezteko azken eguna.



TXEMA VALLES

Bigarren postuari eusten

Garaipen oso garrantzitsua lortu du Eguzki Aldaz Hertz Klinikak asteburuan: 3-2 irabazi dio Idiazabali. Hiru puntu horiekin, Gipuzkoako 1. mailako goiko postuetan jarraitzen du: bigarrena da, 37 punturekin. Golak Ander Petxarromanek (2) eta David Castiñeirik sartu dituzte. Jardunaldi honetan Gaintxu AFTrekin neurtuko dituzte indarrak Christian Arroyoren jokalariek.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONALA
Ostadar SKT - Goierri Gorri FK Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.
ERREGIONALEN GORENGOA
Ostadar SKT - Dunboa Eguzki CD Larunbata. 17:15. Michelin kirol gunean.
JUBENILEN 1. MAILA, IGOERA
Ostadar SKT A - Zestoa KB Larunbata. 12:00. Michelin kirol gunean.
JUBENILEN 1. MAILA, KOPA
Zumaiaiko - Ostadar SKT B Igandea. 13:00. Aita Mari, Zumaian.
KADETEEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Oiartzun KE Larunbata. 13:45. Michelin kirol gunean.
KADETEEN 1. MAILA, KOPA
Beasain SD - Ostadar SKT A Igandea. 16:00. Igartza, Beasainen.
Ostadar SKT B - Intxurre KKE Igandea. 14:15. Michelin kirol gunean.
INFANTILEN 1. MAILA, TXAP.
Texas Lasartearra - Zarautz KE Larunbata. 10:30. Michelin kirol gunean.

INFANTILEN 1. MAILA, KOPA
Urnieta KE - Ostadar SKT A Larunbata. 10:00. Urnietan.
Ostadar SKT B - Sporting de Herrera Igandea. 12:45. Michelin kirol gunean.
ARETO FUTBOLA
SENIOR 1. MAILA
Gaintxu AFT - Eguzki Aldaz H.K. Larunbata. 20:00. Bekoerota kiroldegia, Lezon.
Eguzki Garoa Taberna - Ordizia KE Igandea. 09:20. Maialen Chourraut kir.
SENIOR 2. MAILA
Eguzki ISU Leihoak - Goierri KE Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kir.
JUBENILAK
Goierri KE - Eguzki Balerdi Harategia Larunbata. 10:00. Aldiri kir., Urretxun.
Eguzki 2KN - Zarautz KE Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kir.
HERRIKO TXAPELKETA
Asador Irigoien - Insausti Taberna Larunbata. 09:15. Michelin kirol gunean.
Bar Buenetxea - Avenida FT Larunbata. 10:15. Michelin kirol gunean.
Bar Goiko - Trumoi Taberna Larunbata. 11:15. Michelin kirol gunean.

Viña del Mar - Patricio Cocktail Bar Larunbata. 12:15. Michelin kirol gunean.
SASKIBALOIA
SENIOR PROBINTZIALA, 1. MAILA
Ostadar SKT - Antigua Luberrri KE Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kir.
SENIOR PROBINTZIALA, 3. MAILA
BKL Senior - Ostadar SKT Igandea. 18:00. Antzizar kiroldegia, Beasainen.
JUNIOR PARTAIDETZA
Take Orbinox - Ostadar SKT Larunbata. 09:00. Usabal kiroldegia, Tolosan.
KADETEEN EUSKAL LIGA
Easo ACC - Ostadar SKT Larunbata. 18:00. Bidebieta kir., Donostian.
KADETE PARTAIDETZA
Ostadar SKT - Mondragon Unibertsitatea Larunbata. 13:00. Maialen Chourraut kir.
INFANTIL HANDI PARTAIDETZA
Ostadar SKT - San Benito Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kir.
INFANTIL TXIKI PARTAIDETZA
Ostadar SKT - Goierri Beloki Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kir.

PILOTA
PROFESIONALAK
Bengoetxea VI eta Larunbe - Arteaga II eta Aretxabaleta Ostirala. 20:00. Udal pilotalekua, Larrabetzun.
SENIORREN 1. MAILA
Gazteleku 1 - Intza Ostirala. 18:30. Arrate, Andoainen.
BOLEIBOLA
SENIOR MAILA
Arantzazuko Ama - Ostadar SKT Igandea. 11:00. Maialen Chourraut kir.
JUDO
SENIORRAK, ESPAINIAKO KOPA
Asier Sagasti eta Haritz Urdangarinek Espainiako Kopako proba jokatu dute. Larunbata. Bartzelonan (Katalunia).
INFANTILAK, GIPUZKOAKO TXAP.
LOKEko judoka infantilak Gipuzkoako Txapelketarako sailkapen fasean lehiatuko dira. Igandean. Egun osoan zehar. Hernanin.
ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Gernika RT - Babyauto Zarautz Larunbata. 16:00. Urbieta, Gernikan.

SENIORREN EUSKAL LIGA
Universitario Bilbao - Babyauto ZRT Beltzak Igandea. 16:30. El Fango, Bilbon.
LASTERKETAK
31. LILATOIA
Hainbat lasarteoriatarrek 31. Lilatoian parte hartuko dute, Donostian. Ibilbidea: bost kilometro. Igandea. 10:30. Donostian.
MENDI LASTERKETAK
IX. AIAKO MENDI LASTERKETA
Emilio Astier eta Unai Urruzola herritarrek 14,6 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute. Igandea. 10:30. Aian (Gipuzkoa).
ATLETISMOA
ESPAINIAKO TXAPELKETA
Ostadar SKTko atleta Naroa Furundarenak pista estaliko Espainiako Absolutu Txapelketa jokatu du. Asteburu osoan zehar. Ourense (Galizia).
EUSKADIKO TXAPELKETA
16. 18 eta 20 urtez azpiko hainbat atleta lasarteoriatarrek Euskadiko Txapelketa jokatu dute. Larunbata. 09:00. Antonio Elorza belodromoan, Donostian.

Sumendi hockey taldea, Iberdrola Ligako finalerdietan

Lorena Zabala herritarrak denboraldi erdia jokatu du, entrenamendu batean lepauztaia mindu zuen-eta

Txintxarri

Izotz hockeyko Iberdrola Liga amaitzear da eta Gasteizko Sumendi taldeak aurten ere finalerako bidea egingo du. Gasteizko taldeak denboraldi ederra egin du eta sailkapeneko

bigarren postuan mantendu da liga osoan zehar. Bi partida bakarrik galdu ditu, Majadahonda liderraren aurka.

Asteburu honetan, Puigcerda taldearen aurka jokatu du finalerditako partidak. Beste

kanporaketan madrildarren derbia izango da, Majadahonda-Valdemoro. Martxoaren 7, 14 eta 15ean izango dira finaleko partidak.

Lesioa

Lorena Zabala herritarra dugu Sumendi taldeko jokalarietako bat. Denboraldi hasiera ederki hasi zuen Sumendiko defentsak. Sei jardunaldietan jokatu eta partida bakarra galdu zuen, Majadahondaren aurka. Defentsa lanetan ez ezik, ate aurrean ere



Zabala, jokatzen. SUMENDI

aukerak sortu zituen eta Milenio CP taldearen aurka gol bat egin zuen.

Tamalez, azaro amaieran, entrenamendu batean, lepauztaietako bat apurto zuen eta geroztik harmailetik ikusi behar ditu partidak. Pena handia du herritarrak denboraldi erdia galdu izanagatik. "Aurten ezingo dut ez azken fasea, ezta mundiala jokatu ere". Baina 2020-2021 denboraldia indartsu hasteko lanean ari dela adierazi digu.



Rekondo (ezkerrean) eta Igariz (eskuinean), dominekin. OSTADAR ATLETISMOA

Domina uzta oparora Euskadiko Txapelketan

Furundarena luzera jauziko Euskadiko txapeldun da; Rekondo eta Igariz, bigarren eta hirugarren, pisu jaurtiketan

Txintxarri

Ostadar SKTko atleta gazteak bikain aritu ziren berriro ere Donostiako Antonio Elorza belodromoan. Otsailaren 22an eta 23an, absolutu mailako Euskadiko Txapelketan lehiatu ziren eta talde urdin-beltzeko lau atletek bi probatan parte hartu zuten: luzera jauzia eta pisu jaurtiketa. Lauak finalera sailkatu eta hiruk lehen postuetan amaitu zuten lehiaketa.

Luzera jauziko proban lortu zuen domina preziatuena Naroa Furundarenak. Lehiaketa ona egin zuen gazteak, sei jauzitatik bostetan 5 metroak gaintu zituen; balekoa ez zen bat ere egin zuen. Hirugarren jauzian lortutako 5,57 metroko markak eman zion garaipena. Proba honetako finalean izan zen Enara Gonzalez ere. Seigarren postua eskuratu zuen gazteak, 4,48 m.

Maidar Rekondo eta Oihana Igariz, berriz, pisuko finalean izan ziren lehian. Gipuzkoako Txapelketan bezala, Tolosako Maria Felisa Okomo izan zuten arerio. Hasieratik jarri zen buruan tolosarra eta podiuma osatu zuten Ostadarreko bi atletek. Rekondok zilarrezko domina lortu zuen; Igarizek, berriz, brontzea.

Beste finalak

Txapelketako beste finaletan ere izan zen herritarrik: Atletico San Sebastian taldean dauden Nerea Eugi eta Eneritz Busto eta Real Sociedad taldeko Yeray Veroniz. Busto dominetatik gertu izan zen 60 m. hesi lasterketan, 8,92 segundoko markarekin; Eugi 60 m. eta 200 m. lasterketako finalera sailkatu arren, 60 metroko proba bakarrik egin zuen, 8,06, eta Veroniz ere proba berean lehiatu zen finalean, 7,06.

GOGOAN IZAN abiato 2.0 BERRIAK ESKAINTZEN DIZUN GUZTIA!

BIDEGIk teleordainketa-gailuaren berria den bertsio hobetu bat ateratu du gipuzkoar guztientzat.

Prestazio berriak, erabilera-eremu handiagoa, deskontu-sistema bera...

Abiatu-gailuaren erabiltzailea izan ala ez, dagoeneko abiato.bidegi.eus-en eska dezakezu gailu berria.

Informazio gehiago: info@bidegi.eus | 943 105 106 | GI-20 - KP / PK 14,800 - Aritzeta-Usurbil

Hutsik ez, Euskal Herriko infantil txapelketan

Buruntzaldea IKTKo infantil mailako igerilariak pozarren daude. Hiru domina, hamabost marka pertsonal eta Espainiako Neguko Txapelketarako zein Euskal Herriko Udako Txapelketarako markak eskuratu dituzte asteburuan, Irunen

Txintxarri

Euskal Herriko infantil mailako txapelketa jokatu zen otsailaren 22an eta 23an Irungo Azken Portu kiroldegian. Buruntzaldea IKTKo gazteek ederki egin zioten aurre hitzordu garrantzitsuari. Hiru domina, hamabost marka pertsonal eta Espainiako Txapelketarako zein Euskal Herriko Udako Txapelketarako markak eskuratu zituzten.

Nora Imaz nabarmendu zen guztien artean. Gazteak hiru probatan lortu zituen kolore ezberdinetako dominak: urrea 800 m. librean; zilarra 400 m. librean eta brontzea 200 m. librean. Bi probatan bere marka ondu zuen, 200 m eta 400 m. librean, eta lehen horretan, Espainiako txapelketarako txartela lortu zuen.

June Lopezek ere hitzordu garrantzitsu baterako marka egin zuen, Euskal Herriko Udako Txapelketa. Hiru probetan izango da gaztea: 400 m. eta 800 m. libre eta 100 m. bizkar probetan.

Hiru proba hauetan ere ongi ibili zen Saioa Elola bere markak hautsiz eta Izaro Audikanak balentria bera egin zuen 100 m., 400 m. eta 800 m. libre probetan. Audikanak gainera, EHko udako txapelketarako txartela lortu zuen 400 metroko markarekin.

Eneko Elizasu ere lehen postuetan izan zen. 400 m. libre proban bosgarren amaitu zuen, bere marka hobetuta. 50 m. eta 200 m. libre probetan marka pertsonal berriak ere egin zituen eta lehen marka horri esker, Euskal Herriko Udako Txapelketan izango da lehian. 100 m. bular proban ere izan zen zer ospatu, Garazi Etxeberriak bere marka hobetu baitzuen.

Martin ahizpak bikain

Bestalde, Bidasoa XXI taldean igeri ari diren Ainhoa eta Leire Martin ahizpek txapelketa nagusien denboraldia bikain hasi dute.



Infantil mailako Euskal Herriko txapelketan lehiatu ziren igerilariak. BURUNTZALDEA IKT

BIDASOA XXI TALDEAN DAUDEN MARTIN AHIZPAK BIKAIN, GIPUZKOAKO TXAPELKETAN

Otsailaren 8 eta 9an jokatu zen infantil, junior eta absolutu mailako Gipuzkoako txapelketa lehiatu ziren eta biek domina uzta oparota izan zuten.

Ainhoak txapela jantzi zuen hainbat probatan: 200 m. tximeleta, junior eta absolutu mailan; 200 m. bizkar, junior eta absolutu mailan eta 200 m. libre, junior mailan. Eta brontzezko postuak eskuratu zituen absolutu mailako 200 m. libre eta 50 m. tximeleta probatan.

Leirek ere urrezko domina eskuratu zuen proba ugarian: 200 m. bular, junior eta absolutu mailan; 200 m. estiloetan, junior eta absolutu mailan eta 100 m. estiloetan, junior mailan. Bigarren mailan izan zen absolutu mailako 100 metro estilo probako podiumean eta hirugarrenean junior mailako 200 m. libre proban.

Lortutako marka guztiei esker, Ainhoa junior mailako lehen

eta absolutu mailako bigarren geratu zen FINA sailkapenean; Leire, berriz, bigarren izan zen junior mailan eta laugarren absolutuan.

Banakako probez gain, junior mailako 4x100 m. eta 4x200 m. libre eta 4x100 m. estilo probetan eta absolutu mailako 4x50 m. estilo proban garaile izan ziren bi ahizpak. Ainhoak gainera beste bi urrezko lortu zituen absolutu mailako 4x100 m. estilo misto eta 4x50 m. libre probetan.

Gipuzkoako Txapelketa ez da aste hauetan izan duten txapelketa bakarra izan. Martin ahizpak junior eta infantil mailako Espainiako Elkargo autonomikoen arteko txapelketan ere lehiatu dira-eta. Euskadiko selekzioarekin Kanariar Uharteetan izan dira otsailaren 14tik 16ra.

Ainhoak izan ditu emaitza onenak. Hirugarren postua eskuratu zuen 400 m. estilo proban eta bi laugarren postu 100 m. eta 200 m. bular probetan.

Bi ahizpak, Buruntzaldea IKTKo igerilarien antzera, martxoaren 14an eta 15ean, Iruñean lehiatuko den junior eta absolutu mailako Euskal Herriko txapelketarako prestatzen ari dira orain.

Emaitza onak junior eta infantil mailako txapelketetan

Almi Camposek brontzezko domina eskuratu du Euskadiko txapelketan; infantilek, lau domina, Legazpin

Txintxarri

LOKEko judoken denboraldia aurrera doa. Aurreko asteburuan Euskadiko Junior Txapelketa eta infantil mailako Legazpi torneoan izan dira lehian. Guztira urrezko domina bat eta brontzezko lau eskuratu dituzte gazteek.

Brontzezko lehen domina Almi Camposek lortu zuen Erandion, Bizkaian jokatu zen Euskadiko Txapelketan. Camposek hiru borroketan parte hartu zuen. Lehen kanporaketan kaleratua izan ostean, bigarren aukeran ez zuen hutsik egin eta jokaturako bi borroketan gailendu zen LOKEko gaztea. Horri esker, txapelketako podiumeko hirugarren mailara igo zen.

Gainerako dominak Legazpi Torneoko garaikurrak dira. Infantil mailako sei judoka izan ziren parte hartzen txapelketan eta guztiak izan ziren dominengatik lehian. Batzuk besteak baino hobe moldatu ziren lehiara; hala ere, lauk domina eraman zuten etxera.

Julen Ugartek buruz buruko guztiak irabazi eta urrezkoa lortu zuen. Unai Guisado, Tania Curiek eta Naiara Sagasti, ordea, brontzezko postuan izan ziren.

Iker Izquierdori eta Aitor Santosi azken borrokan egin ziren ihesi brontzezko dominak. Gorka Aristegi LOKEko prestatzailea pozarren dago emaitzekin eta gazte guztien garapenarekin. Almi Camposen domina nabarmen izan da gainera. "Junior mailako txapelketetan



Almi Campos dominarekin. LOKE JUDO

ari da lehian, baina berez kadetea da", gogorarazi du Aristegik.

Gipuzkoako txapelketa

Camposek Euskadiko Txapelketako dominaz gain, Gipuzkoako brontzezko domina ere bere esku duela jakitera eman digu. Ez zen domina bakarra izan.


Urtarrilaren 18an, Hondarrribian jokatu zen txapelketa eta Camposekin batera, Martin Sebastian, Carmen Peña eta Lucas Morales kadeteak ere lehiatu ziren txapelketa horretan.

Sebastian eta Peña hirugarren postuko lehiara iritsi ziren bakoitza bere pisuan eta biek garaipena erdietsi zuten.

Asteburu honetan bi hitzordu dituzte judoek: Espainiako Senior kopako jardunaldia, Bartzelonan eta infantil eta alebin mailako Gipuzkoako txapelketarako sailkapena, Hernanin.

Ezin aurrera egin

Arteaga II.ak eta Urretabizkaia II.ak ez dute promozio mailako bikotekako txapelketako azken fasea jokatuko. Astelehenean Tolosako Beotibar pilotalekuan Inauteri giroan agur esan zitoten txapelketari, 14-22. Finalerdietako plaza bat zegoen jokoan eta bikoteak ez zuen lan erraza; Salaberriak eta Tolosak 15 tanto egitearekin eskuan zuten txartela. Arerioak serio atera ziren pilotalekura eta euren joko ezarri gailendu ziren.



ZORION AGURRAK



Urko
Zorionak potxolo! Ia ia konturatu gabe 4 urte bete dituzu! Segi holako alaiak ta zoriontsua izaten. Muxu goxoak etxekoan partetik!



Aiora
Zorionak, Aiora zure bosgarren urtebetetzean! Muxu asko gurasoen eta familia guztiaren partez! Askoi maite zaitugu!



Ibai
Zorionak Pirata!!! Oso ondo pasa. Muxu handia zuretzat!!!

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 28	DE ORUE
Larunbata, 29	ACHA-ORBEA
Igandea, 01	ACHA-ORBEA
Astelehena, 02	DE MIGUEL
Asteartea, 03	LASA
Asteazkena, 04	GIL
Osteguna, 05	ACHA-ORBEA

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTOND0: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani/ 943 55 77 38

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

JAIOTAKOAK

Irati Armendariz San Emeterio. Otsailaren 23an.
Malen Martinez Marquez. Otsailaren 21ean.
Raquel Leon Diaz. Otsailaren 18an.

HILDAKOAK

Felix Gonzalez Benito. Otsailaren 21ean.
María Miguelez Alonso. Otsailaren 19an.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINAZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Maskaradetara autobusa

Ttakun kultur elkarteak autobusa antolatu du, martxoaren 14an, Altzürüküko gazteek Maulen egingo duten Maskarada ikusteko. Autobusa goizeko 8:30ean aterako da Lasarte-Oriarik eta 18:30ak aldera izango da hitzordua Maulen herrira bueltatzeko.

Autobuseko txartelak salgai daude Jalgi tabernan eta Ttakun kultur elkartearen. Bazkideek 12 euro ordaindu behar dituzte eta bazkide ez direnek, berriz, 15 euro. Martxoaren 9ra arte egongo dira tiketak eskuragarri.

Azoka txiki solidarioa

Martxoaren 5ean eta 6an Donostiako Santa Teresa Ikastetxean azoka txiki solidarioa egingo dute. Bildutako dirua gobernu kanpoko hiru erakundetara bideratuko da, giza-integrazio proiektu ezberdinetarako: Caritas, Fundeo eta Manos Unidas.

Goizean 9:30etik 13:30era eta arratsaldean 15:30etik 18:00etara egongo da azoka ikastetxean bertan, Manuel Lardizabal Ibilbidea 25, Donostian.

Informazio gehiago nahi duen herritarrak 943 211 764 telefonora dei dezake.

'Premenopausia eta menopausia' hitzaldia

M^a Jesus Balbas Cisneros 'Txusa' ginekologo eta mediku homeopatak *Premenopausia eta menopausia* hitzaldia eskainiko du, Gurutze Diafreo gunean.

Hitzordua martxoaren 5ean izango da, 19:30ean. Bi orduko saioa izango da. Plaza mugatuak dira eta matrikula ordaindu behar da. Informazio gehiago, 617 584 095 zenbakian.

GUTUNAK

Zaldibar argitu, erraustegia ez piztu!!**AIRE GARBIA**

Ohar hau idazten dugunean, 19 egun pasa dira Zaldibarreko hondakindegian luizia gertatu zenetik. Zaldibarren gertutakoak berretsi baino ez ditu egiten gure herritik gertu eraiki duten Erraustegia gelditzeko eman ditugun arrazoiak. Horregatik, kezka eta ezinegonak hartuta, Lasarte-Oriako Aire Garbia erraustegiaren kontrako ekimenak ondoko hausnarketak konpartitu nahi ditu lasarteoriatarrek:

- Lehenengo eta bat, gure dolumin sakonena une honetan oraindik desagertuta dauden bi langileen senide eta lagunei. Hau ez da kasualitatea; beste askotan bezala, hau ez da lan istripu bat. Hau, beste ezereen gainetik, langileen bizitzaren ere gainetik, etekinak bilatzen duen kudeaketa eredu baten ondorio jakin, zuzen, krudel eta saihestezina da.

- Sakonera joanda, erraustegiak Zaldibarren aplikatu den hondakin kudeaketa pribatizatze politikak berberari erantzuten dio, EAJ-PSOE kudeatzen dituzten erakundeek bultzatzen duten eredu, alegia. Ez gaitezen engaina, Verter Recycling-en modura, URBASER-ek ez dauka pertsona (herritar edota langileak) helburu, ahal den etekin handiena lortzea dauka zeregina. Inozoak bakarrik pentsa dezake kontrako.

- Aurrekoa larria izanda, are larriagoa da Zaldibarrekoaren harira jakin izan duguna: Jaurlaritzaren erabakiz, 2000. urtetik aurrera, Administrazioak instalazio industrialen ziurtasun eta kalitatearen parametroen zaintza zuzena

egiteari uzten dio eta enpresen esku uzten du; ondorioz, enpresak berak dira instalazioen ziurtasunaren erantzuleak. Osoa ardiaren artzain, alegia. Hau da, URBASERen arduraren menpe egongo da lasarteoriatarron osasuna. *Ora pro nobis, Lucifer!* Horrela jokatu, ondorioztatzen duguna da gure Administrazio Nagusiek ere ez dutela pertsona helburu, beraien propagandetan esaten dutenaren kontra.

- Airearen kalitatearen neurketek ere asko ikasi dugu. Duela hilabete gutxi, erraustegiak herriko aire kalitatean izan dezaken inpaktua neurtzeko estazio finko bat jarri dela esan zigun Asensio jaunak. Argi dago orain, lasarteoriatarrak engainatzeko propaganda kanpaina hutsa izan zela: dioxinak eta furanoak ez dira Lasarte-Orian ez modu jarraian neurtuko, laginak hartu eta hainbat egun pasa eta gero Madrilen neurtuko dituzte. Bitartean, pozoia biriketetan sartu.

- Propagandarekin lotuz, mesfidantza handia sortzen digu Zaldibarren bueltan egon den opakotasun eta desinformazio saiakera. Herritarrek gaizki eta berandu izan dute bertan gertatuaren berri; eta hutsune handiak daude oraindik, galdera eta zalantza asko daude oraindik erantzun baten zain. Hau da lasarteoriatarrei, "Gipuzkoako ingurumen-gune" berde koloreko estalpean, erraustegiaren lobby politiko-ekonomikoek eskaintzen diguten etorkizuna? Ez, eskerrik asko, ez dugu hori merezi.

Hauengatik eta tintontzian geratzen diren beste arrazoiengatik, Aire Garbian argi daukagu: aurrean dugun erroka ekologikoari eusteko, ez dugu erraustegirik behar. Neurri ausart eta aurrerakoiak behar ditugu, erraustekarik

gabeko hondakin kudeaketa iraunkor eta garden bat. Konpromiso kolektibo eta politikoa behar dugu, ingurumenaren zaintza ardatz duten ereduengandako atxikimendua zabaltzeko, hau da, kontsumoaren murrizketa, berrerabilpena eta birziklapenean oinarritutako sistemen inplantazioa logika sozioekonomiko bakar gisa nagusitzeko. Politika publikoetatik bermatu behar den trantsizio ekologiko batek eskumenen pribatizazio gutxiago eta demokratizazio gehiago eskatzen du. Nork ordainduko du erraustegiaren zorra?

Herritarrok hitza eta erabakia hartu nahi dugu, hondakin kudeaketa geure egunerokoen afera delako, zuzenean eragiten digulako, eta errausteketa geure lur, gorputz eta bizitzak kutsatzerik nahi ez dugulako. Ingurumena eta bizitza erdigunean jarriko duen jendarte eredu baten aldeko borrokan trantsizio ekologikoa ardatz hartuko dugu eta bertan eragiteko konpromisoa geure egingo dugu.

Amaitzeko, Lasarte-Oriako Aire Garbiak geure osasuna, ekonomia eta klimagatik, erraustegia gelditzeko LARReko mahaiak OTSAILAREN 29an arratsaldeko 17:00etan Donostiako Easo plazatik abiatuta deitu duen manifestazioarekin bat egiten du, eta gonbidapena luzatzen die lasarteoriatar guztiei bertan parte hartzeko eta baita, helburu hauekin, egun hauetan dei daitezkeen manifestazio eta elkarretaratze guztietan ere.

JENDARTE HAU BIZIAGARRIAGOA EGITEKO!
ERRAUSKETARIK GABEKO HERRI BATEN ALDE!
EZ DIEZAGUTEN ETORKIZUNA ERRE!!

ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Euskotren ondoko garajea marra salgai. Harremanetarako zenbakia, 687 271 288.

ERRENTAN EMAN

Udarako hilabeteetarako etxea alokatzen da, Punta Umbrian, Huelvan. Bi igerileku eta padel pista ditu. Garajea barne. Harremanetarako zenbakia, 943 376 115.

Urbarte auzoan bi garaje marra alokatzen ditu. Harremanetarako zenbakia, 943 376 115.

LANA

ESKAINZA

Jatetxe eta proiektu gastronomiko berrirako zerbitzariak eta sukaldariak behar dira. Interesatuak CVA bidali dezakete hurrengo helbide elektronikora: info@casahumada.com.

ESKARIA

Esperientzia duen pertsona euskalduna

eskaintzen da haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Dendari edo garbitzaile bezala ere lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 677 356 413.

Pertsona eskaintzen da garbiketa lanak eta ume edo pertsona adinduen zaintza lanak egiteko. Harremanetarako zenbakia: 604 341 893.

Pertsona eskaintzen da edozein lanetarako: baserrian lan egin, pertsona adinduak zaindu edo kristalak garbitu. Harremanetarako zenbakia: 604 341 893.

Pertsona eskaintzen da helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka edo gauetan lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia, 634 278 198.

SALEROSKETAK

SALDU

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia. Arina, erosoa eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 400 euro. 646 824 466.



NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Inigo Gonzalez,
Maddi Zaldúa eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iraiti Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzaileak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,
Erlantz Ezeiza, Inigo Garcia eta
Jose Lanchas.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

LASARTE-ORIA

Arreta profesionalena, herrian bertan!

GREMIOEN GIDA 2020



Herriko GIDA KOMERTZIALA sarean ikus dezakezu
www.txintxarri.eus/gida



Elektrizitatea



Kristaldegi eta leihoak

ELECTRICIDAD ARREGUI

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21
600 857 586 - www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com (on-line denda)

DEL ORIA KRISTALDEGIA

- Ispiluak
- Beira apaingarriak eta alakatuak
- Merkataritza instalazioak
- Dutxa itxidurak
- Kristalgintza orokorra

Uistin Kalea 11 (Zubieta Plaza) Lasarte-Oria
Tif.: 943 36 23 52 607234522
www.cristaleriadeloria.com

ANORGA TXIKI S.L. KRISTALDEGIA

- Komertzial instalazioak
- Beira bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
- Ispiluak
- Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
943 37 17 33 • 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com

ISU
28. urteurrena

Mota guztietako leiho, pertsiana, manpara, toldo eta dekorazioko profesionalak zure zerbitzura

ZUBI TERMIKOAREN HAUSTURA, ALUMINIOA, PVC ETA POLIURETANOA

Kale Nagusia, 46 behea • Lasarte-Oria
Tel. 943 36 64 95 • Faxa: 943 36 52 22
ventanas_isu@hotmail.com
Pol. Ugaldea, 21 • 6 lokala, Usurbil



Barne-Diseinua



Iturgintza



Igeltseritza

SUGATE
SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
- AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5
Lasarte-Oria
Tel: 943 361 471
www.sugatecocinas.com

ILLARRETA
ITURGINTZA
IGELTSERITZA

- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSEKITZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ETXEBIZITZEN ETA LOKALEN BERRIKUNTZA OSOA

BULEGOA: Geltoki kalea 14, Lasarte-Oria
Tel. 943 36 31 47 eta 943 36 17 52.
TAILERRA: Oialume bidea 24, Astigarraga
info@illarreta.com

ANTONIO ARREGUI, S.L. eraikuntza materialak
IGAMMA

- ERAIKUNTZA MATERIALAK OROKORREAN
- ZERAMIKA
- SANITARIOAK
- KOMUNNEKO KONPLEMENTUAK

www.gamma.es

BILTEGI OROKORRA ERAKUSKETA
Oria Etorbidea, 6 Goikale, 2
20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 36 64 73 Tel.: 943 36 59 47
aarreguis@gmail.com Faxa: 943 36 59 47

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra

- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 059 392 - 943 566 640
uraitz@uraitz.com - www.uraitz.com
Bulegoa: Geltoki kalea 15, Lasarte-Oria

TXINTXARRI aldizkarian zure publizitatea agertzeko, jar zaitez gurekin harremanetan:
943 37 14 48 (106) / 646 82 44 66 | publizitatea@ttakun.eus
Hurrengo GREMIOEN GIDA martxoaren 27an kaleratuko dugu